ASTEKARIA | 2016ko apirilaren 8an | XIX. urtea | USURBIL | 652. zenbakia | www.noaua.eus

TOKIKOM

# noaua

Energia-pobreziaren aurkako mozioa onartu du udabaltzak

'Mintzalagun' gehiagoren beharrean

Astelehenean, Jai Batzordearen bilera



# Eskubaloiko jubenil neskak, Euskadiko Txapeldun izateko bidean


ALKARTASUNA
GARAGARDO
ARTISAUA EGITEKO
IKASTAROA
ALKARTASUNA
KOOPERATIBAN
NOIZ: APIRILAK 15, OSTIRALA 15:30-19:30 PREZIOA: 25€, BAZKIDEEK DOAN
IZEN EMATEA: 943361114 alkartasuna@usurbil.com edo www.alkartasuna.eus


Ontzi arinak ondo bereizteko
zenbait gomendio
BAI
Komertzioetako plastiko poltsa
Kafe kapsulak hustu
Albal papera
Aerosolak
Erabili-hustutzeko lorontziak
Plastikozko botilak, letak eta tetrabrickak
Marrubien egurrezko kaxa txikiak
EZ
Medikamentu kondarrak
Ontziak likidoarekin (hustu eta tolestu)
Tonerrak
Lorontzi finko gogorrak
Plastikozko eskularruak
Jostailuak
ECOEMBES
garbitania
Astigarragako Udala

## Albistea iruditan

# Sakabanaketaren aurka, presoen etxeratzearen alde

Apirilaren 17rako manifestazio deialdia egin dute Bilbon: *Amnistiaren norabidean, euskal preso eta iheslariak etxera* lemapean. Usurbilgo preso eta iheslari ohiek manifestuarekin bat egin dute eta Bilbora joateko deia zabaldu dute.

Euskal Herriari bere geroa eraikitzeko aukera "bahitu diote estatu espainiarrak eta frantziarrak luzaroan". Hala dio preso eta iheslari ohiek sinatu duten agiriak. Gatazkaren funtsezko arrazoiak hor dirau oraindik, "eta borrokak ereindako haziari atxikiz, ezker abertzale osoaren hautua gure egin dugu. Soilik molde politiko eta demokratikoetatik aurrera egiteko erabakia fermuki babesten dugu".

Espero ez zuten "jarrera bortitza" aurkitu dute estatuen aldetik. "Preso eta iheslari politikoen aurkako jazarpena. Bahitu politiko gisa dituzte, salbuespen neurriak ezartzen dizkiete, eta haienarekin batera beren senideen sufrikarioa areagotzetik etekin politikoa atera nahian ari dira etenik gabe Madril eta Parisetik. Euskal jendartearekin batera ekinez gainditu behar dugu ezartzen diguten langa hori, eta badakigu ez dela egun bakar batean gauzatuko". Preso eta iheslari ohien ustez, era dinamiko eta antolatuan emango da preso eta iheslarien etxeratzea.


**Argazkian ageri diren preso eta iheslari ohiek bat egin dute apirilaren 17an Bilbon egingo den manifestazio nazionalarekin.**

"Salbuespenezko legedia astindu beharra dago, sakabanaketa bukatu. Gehiengo sozial zabalak eraginkortu beharko du irekitako eskenatoki berria, ustel ez dadin. Alde anitzetako konpromezuak behar ditu honek guztiak. Guk geurea aldarrikatu nahi dugu lehenik eta behin. Euskal preso politikoen Euskal Herriratzea eta etxeratzearen aldeko lanean murgiltzera gatoz". Horregatik, dei egiten dute apirilaren 17ko manifestazioan parte hartzera.

### Autobusak antolatuko dira

Apirilaren 17ko manifestazioa eguerdiko 12:00etan abiatuko da, Bilboko La Casillatik. Autobusez joateko aukera izango da. Izena emateko, Usurbilgo ohiko tokietan.

## Laburrean

### Apirilaren 11n, Jai Batzordearen bilera

Datorren astelehenean, apirilaren 11n, 18:00etan Potxoenean. Bilerak irekiak dira, herritar eta eragile ororentzat. Jai Batzordetik iragarri dutenez, aurten idea berri ugari omen daude.

### Abian prozesuko azken batzarra

Ezker Abertzaleak Abian prozesuaren baitan deituriko batzarra apirilaren 16an larunbata egingo da, 9:30ean Potxoenean. "Txosten erabakitzailearen aurkezpena, eztabaida eta bozketa" egingo da.

### Erroizpe elkartekoen batzar nagusia

Txokoaldeko elkarteko bazkideen batzar nagusia datorren astean egingo da, apirilaren 17an igandea. Goizeko 10:00etarako egina dute lehen hitzordua; bigarrena ordu erdi beranduagorako, 10:30ean.

noaua
Kultur Elkartea
Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil
943 360 321 /// elkartea@noaua.eus /// www.noaua.eus
Jendaurreko ordutegia: 10:00 - 14.00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

**Elkarteko lehendakaria:** Idoia Torregarai.
**Aldizkariko koordinatzailea:** Imanol Ubeda.
**Idazkaria:** Aizpea Aizpurua.
**Publizitatea:** Beatriz Alda, publizitatea@noaua.eus
**Diseinu berria:** Erroitz S. L.
**Erredakzio kontseilua, erredakzioa@noaua.eus:** Imanol Ubeda, Aritz Lasarte.
**Banaketa:** Olatz Rezola, Ekhi Arrieta.
**Laguntzaileak:** Lontxo Zubiria, Maria Angeles Arruti, Ainara Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria Jesus Urbieta, Maddi Galbete, Ana Urdangarin, Maddi Zaldua, Iñaki Larrañaga, Pako Agudo, Jon Etxabe, Alazne Begiristain, Denis Elortza, Pello Aranburu, Xabier Aranburu, Inma Balda, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Maialen Unanue, Ugaitz Agirre, Joxe Piñas, Unai Agirre, Idoia Torregarai eta Udarregi ikastola.
**Tirada:** 2.800 ale.
**Lege-Gordailua:** SS-668-96
**ISSN:** 1136-6818.

**Inprimategia:** Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

Usurbilgo Udala

AIRE, AIRE !!! EUSKARARI
Gipuzkoako Foru Aldundia

Euskal presoak
Euskal Herrira!

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

**Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua.**



**Imanol Ubeda**

# #NOAUA20urte

■ 1996an: AEK, IKA Oinarriak eta EKB erakundeek deiturik manifestazioa egin zen ekainean Iruñean, euskalduntze-alfabetatzeari dagokionez, Nafarroako Gobernuaren borondate eza salatzeko.

■ 1996an: Iruñeko udalak euskara diskriminatu egiten duela salatu zuen Ortzadar dantza-taldeak, udalaren diru-laguntza jasotzen duten dantzaldien propaganda gaztelaniaz bakarrik egin daitekeela dioen klausula batengatik.

■ 1996an: Ikasle Abertzaleak-ek NUPeko departamentuak okupatu zituen irakasle euskaldunak eskatzeko.

■ 1996an: Iruñeko Axular udal ikastolako guraso eta haurrek bizikleta-martxa egin zuten martxoan, Txantrea auzoan Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza D ereduan irakatsiko lukeen institutua eskatzeko.

■ 1996an: Funtzionarioen euskalduntze plan berria Ertzaintza eta Osakidetzara ere iritsiko zela agindu zuen Mari Karmen Garmendiak. Bost urteko epean 1.000 funtzionario inguru euskalduntzea aurreikusten zen.

■ 1996an: EHEk mediku euskaldunak exijitzeko kanpaina egin zuen. Osasunaren arloan bizi den egoera «latza eta lotsagarria» dela salatu zuten, sendagile askorekin ezin baita euskaraz egin.

■ 1996an: EKBk euskal hiztunek jasaten duten baztertzea eraman zuen Nazio Batuen Erakundera apirilean. 64 diskriminazio-kasu aurkeztu zituzten adibide gisa.

■ 1996an: Zinea Euskaraz-ek "Rainbow", "A close shave" eta "Ratty" filmak bikoiztu zituen zine-areto komertzialetan pantailaratzeko. Banatzaile handiek, ordea, beraien filmak euskaratu ahal izateko eskaerari ezezkoa eman zioten.

■ 1996an: Joseba Jaka zenak abiatutakoari jarraikiz, Euskalgintza Elkarlanean fundazioa sortu zen.

■ 1996an: Anuntxi Aranak euskarazko tesia aurkeztu zuen, Baionako Fakultateko lehena.

■ 1996an: Euskal Herriko Farmazilari Euskaldunen Elkartea sortu zen.

■ 1996an: Europa Press agentzia euskarazko albisteak eskaintzen hasi zen uztailean.

■ 1996an: Entzun! euskara hutsezko musika-aldizkaria sortu zen.

■ 1996an: Ttipi-Ttapa aldizkaria Internet sarean sartu eta orrialdea zabaldu zuen irailean. Web gisa, euskarazko lehen komunikabidea dugu.

■ 1996an: Euskara eta Euskal Kultura bultzatzea helburu duen Amalur elkartea sortu zen Baionan, Gurien Bai elkartea Iurretan eta Doike elkartea Baztanen; Deba Garaian, berriz, Euskalan elkartea.

■ 1996an: Soraluzen Pil Pilean herri-aldizkaria sortu zen, Basaurin Bost Axola hilabetekaria eta Lezon, Orratx!.

■ 1996ko udaberrian, NOAUA! hamaboskaria abiatu zen Usurbilen.

Ia dena esana dago, eta dena egiteko oraindik.

Iturria: *Gure mendea* liburua (Argia, 2000)

Aritz Gorriti | Idoia Torregarai | Maialen Unanue | Ilazki Gaintza | Luis Aranalde | Luken Arkarazo | **Imanol Ubeda**

## Ika-mika

# 40 urte, 100 egun

Orain aste gutxi, 1976ko martxoaren 3an, Gasteizen, Polizia espainolak langileen kontra egindako triskantzaren 40. urteurrenaren harira, hainbat ekitaldi egin dira gertakizun tamalgarri haiek oroitzeko. Eraildako langile haien senide eta lagunek merezi duten aitortza jaso ahal izan dute, neurri batean behintzat, basakeria haren arduradunen oinordekoek ez baitute oraindik beren erantzukizuna onartu.

Urtemuga horren harira, duela 40 urte ere Usurbilen eta inguruko herrietan aztarna handia utzi zuen beste gertakaria aipatu nahiko nuke: Michelinen egin zen greba gogoangarria, 1976ko otsailaren 15ean hasi eta 100 egun justu iraun zuena. Belaunaldi gazteagoek agian ez dute entzun ere egin baina greba hark bertako langile eta beren familien (tartean gurea ere, usurbildar asko bezalaxe aita hango langile baizen) bizimodua ez ezik, erabat baldintzatu zuen eskualde osoko bizitza.

Garaiko egoera sozio-politikoan, Franco hil berria baina frankismoa oraindik bizi-bizirik, langileen mugimendua erdi klandestinoa zen. Hala, beren lan-baldintzak hobetzeko eta soldata duinak lortzeko orduan ez zen erraza grebara jotzea, batez ere, zegoen errepresioa ikusita (adibiderako arestian aipatutako Gasteizko gertakariak). Halabeharrez hartu zuten, ordea, erabakia eta garai hartan 3.500 langile zituen enpresa multinazionalak inoiz ezagutu duen greba luzeena jasan zuen.

Herritar askok gogoratuko du nola ibiltzen ziren elizetan eta frontoietan, erdi ezkutuan asanbladak egiteko, guardia zibilen jazarpenetik alde egiten, beren ordezkarien atxiloketak pairatzen, (Usurbilgo elizan gertatu zen bezala) baina baita ere zenbat elkartasuna jaso zuten herritarren, merkatarien eta dendarien aldetik.

Horri esker, neurri batean, eutsi zieten hainbeste egun. Orduan, orain bezala, langileon eskubideak errespetarazteko borrokarako grina eta elkartasuna giltzarri dira, askotan azken garaiotan ahaztu samar daukagula iruditzen zaidan arren.

**Arantxa Manterola**

* Ika Mika atalerako idatziak gehienez 2.000 karaktere izango ditu. NOAUA!k ez du bere gain hartzen Ika Mika atalean adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik. Zuzenean beste pertsona bati zuzenduta dagoenean, izen-abizenekin argitaratuko da ika-mikarako idatzia. Hurrengo alea: apirilak 15. Idatzia ekartzeko azken eguna: apirilak 11.

# Eraldatzen eta Kooperatzen formazio programak abiatzear dira

Bietan izen emateko epea ostiral honetan, apirilaren 8an itxiko dute. Apirilaren 11tik ekainaren 18ra, astero 3 egunetan izango dira klase presentzialak, Hernaniko Florida auzoa 28an, Gabriel Zelaia eraikinean, doan eta euskaraz. Hernaniko Udalak Donostia-Beterrirekin batera antolaturiko formazio ikastaro hauetan apuntatzeko formularioa, usurbil.eus atarian sartuta bete dezakezue.

“Eraldatzen, ekonomia sozial eraldatzailearen (ESE) inguruko formazio saioak izango dira. Hainbat gaien inguruko jakintzak eta gogoetak partekatuko ditugu, horien artean: energia, elikadura eta etxebizitza burujabetza; kontsumo kritikoa; zaintzak, eta abar”. Beti ere, eraldatzaileak izango diren proiektuak garatzeko ahalduntzea eskaintzeko helburuarekin.



Apirilaren 8ra arte dago zabalik izena emateko aukera. Klase presentzialak apirilaren 11n hasiko dira, eta astean hiru saio izango dira. Argazkia: Kronika.

*ESKUALDEKO PROGRAMAK*

***“Elkar ezagutu, saretu, proiektu amankomunak sortu, ikasi eta ezagutzak partekatzera etor zaitez”***

### “Sortu, saretu, ikasi eta ezagutzak partekatu”

Kooperatzen programa berriz, “ESEan oinarritzen diren enpresak sustatzeko ekintzailetza zerbitzua da. Edozein enpresa-ideia eredu sozial eta kooperatiboan sortzen laguntzeko formakuntza eta aholkularitza eskainiko dira bertan. Gainera, zeure enpresa garatu ahal izateko baliabideak eskainiko zaizkizu, hala nola, lantokia, finantzaziorako erraztasunak, etab. Honenbestez, talde eragile edo norbanako bezala landu ditzakezu aipatutako gaiak, izan herri mugimenduetan aritzeko edota enpresa bat sortzeko. Elkar ezagutu, saretu, proiektu amankomunak sortu, ikasi eta ezagutzak partekatzera etor zaitez!”, luzatu dute gonbita antolatzaileek.

### Informazio gehiago

Informazio gehiago jaso edo zalantzak argitzeko: a-egia@hernani.eus

**Ika-mika**

## Intertzeptorea garrantzitsua bada ere, Oriako saneamenduak segida behar du

Azkenean lanean hasi da Lasarte-Oriako eta Usurbilgo Intertzeptore Nagusia. Atzerapenak atzerapen, albiste bikaina da, dudarik gabe. Dena dela, ez genuke begi-bistatik galdu behar Intertzeptorearekin ez dela inola ere saneamenduaren arazoa bukatzen, oraindik asko direlako Oriara zuzenean joaten diren ur zikinak, baita Usurbilen bertan ere, NOAUAk berak orain dela gutxi nabarmendu duenez. Ikus ditzagun ideia hauek banan-banan…

Tamainari zein kostuari erreparatuta, Intertzeptorea oso lan garrantzitsua da. Baina oso garrantzitsua da batez ere Lasarte-Oriako eta Usurbilgo ur zikinak biltzea eta Loiolako araztegira eramatea ahalbidetzen duelako, behingoz ahalbidetu ere. Kontuan izan behar da, orain arte Lasarte-Oriako eta Usurbilgo ur beltzak (18.000 eta 6.000 laguneko herriak, hurrenez hurren) zuzen-zuzenean Oriara joan direla.

Intertzeptorea azkenean lanean hasi dela nabarmendu dugu. Izan ere, atzerapena izugarri handia izan da. Lanak 2009ko azaroan hasi ziren, burutze-epea lau urtekoa zela. Alabaina, sei urte luze iraun dute, batez ere Estatuak (Estatuak ordaindu baititu) azken urteotan aurrekontuetan egin dituen murrizketen ondorioz. Dena dela, bi urteko atzerapen hori hutsaren hurrengo da kontuan hartzen badugu Lasarte-Oriak eta Usurbilek, Europako Saneamendu Zuzentarauaren arabera, beranduenez 2000. urtean utzi behar ziotela ur zikinak Oriara botatzeari.

Atzerapena hain da handia ezen baten batek, borondate onez baina gaia behar bezala ezagutu gabe, zera esan duen: “Intertzeptoreak amaiera emango dio 2016an zentzurik ez zuen anakronismo bati”. Baina tratatu gabeko isuriak izatea anakronismoa baldin bada, Intertzeptorearekin ere anakronismoak iraungo du, isuri kutsakorrek jarraitzen dutelako. Are gehiago, erakundeek, batez ere Eusko Jaurlaritzak, arazoa konpontzera orain arte baino baliabide gehiago bideratzen ez dituzten bitartean, ondoko hamarkadetan ere jarraituko dutelako. Urtarrilean onartutako Plan Hidrologiko berrian horrela aurreikusita dago, gainera. Portzierto, Plan horrek aipatzen dituen egin gabeko saneamendu-proiektuetatik bat Aginagakoa da. Proiektu horretaz hemendik pixka batera xeheago hitz egiteko aukera izatea espero dugu.

Ulertzen dugu politikoentzat ia edozer saneamendua baino glamurosoagoa izatea. Alabaina, guk, Bertolt Brechten urak gure errotara ekarriz, badakigu proiektu txarrak, txarragoak eta zitalak dauden bezala, proiektu onak, hobeak eta bikainak ere badaudela. Eta gero daude ezinbestekoak: horietakoak dira saneamenduarekin zerikusirik dutenak.

**Martin Anso, Eguzki**

# Udal gobernu plana martxan

## LEHEN FASEAN 23 EGITASMO BIDERATUKO DIRA, BATZUK GAUZATU DIRA JADA

Orain hasi eta datozen 4 urteotan, 2020ra bitarte gauzatu asmo dituen 118 ekimeneko bide-orria aurkeztu zuen Usurbilgo Udaleko gobernu taldeak pasa den otsailaren 25ean Sutegin. Proiektuen zerrenda osoa, usurbil.eus atarian kontsultatu dezakezue.

Egitasmo guztion segimendua egin, bidean sor daitezkeen ekimen berriei leku egin, hurrengo urrats eta planifikazioak zehazteko, Jarraipen Batzordea martxan jartzeko asmoa du gobernu taldeak. "Gobernu Planaren jarraipenerako sorturiko batzordeak, egitasmo hauen betekizun maila neurtuko du, hurrengo faserako helburuak ere zehaztuz, iragarri zen bezala", Usurbilgo Udaletik aditzera eman dutenez.

"Geroa da Oraina" gobernu programa aurkeztuta, iragarritako ekimenak gauzatzen hastera doaz. "Lehen fase honetan 23 egitasmo jarriko ditu indarrean, sei atal horietatik abiatuz eta Gobernu Planaren asmoetan zegoen bezala, auzo, adin edo jende talde ezberdinak aintzat hartuz", Usurbilgo Udaletik ohartarazi dutenez. Honatx 23 ekimenon zerrenda.




**Otsailaren 25ean aurkeztu zen legealdi osoko programa. 118 neurri proposatu zituzten eta dagoeneko batzuk gauzatu dira.**

*JARRAIPEN BATZORDEA*

***"Gobernu Planaren jarraipenerako sorturiko batzordeak, egitasmo hauen betekizun maila neurtuko du"***

Batzuk jada gauzatu dituzte:

■ Mugikortasun eta espazio libreen plana idatzi eta abian jarri.

■ "Errioa bizi!" Oria ibaiaren paisaiarako ekintza-plana garatu.

■ Argikuntza sarea progresiboki berritu, kontsumo baxuagoko LED argiak jarriz.

■ Ur zikinen sarea Loiolako araztegiarekin lotu eta Aginagatik Usurbilerako zatia bideratu.

■ Komun publikoa jarri Askatasuna plazan.

■ Herri garbiketarako makineria ordezkatu zarata eta kutsadura txikiagoa sortzen dutenengatik.

■ Herri eragileekin batera "Erraustegiari stop!" aldarria babestu eta lanari jarraipena eman.

■ Energia berriztagarrien aldeko eta energia kontsumoa murrizteko zerga hobariak aplikatu.

■ Pobrezia energetikoaren aurkako neurriak hartu, aholkularitza zerbitzua eta laguntza sistema antolatuz.

■ Udalaren Oinarrizko Lanbide Heziketa Eskolan ile-apainketa eta estetika zein sukaldaritza eta zerbitzari ikasketak eskaini.

■ Enpresen berrikuntza teknologikorako Barnelkar eta Kit programak abiarazi.

■ Urberritzen proiektuarekin eskualdeko berrikuntza sozialean eragin.

■ Usurbil herri-txartela martxan jarri herriko merkataritza eta ostalaritzaren promoziorako.

■ Usurbil txanpona indarrean jarri.

■ Boulderra martxan jarri.

■ Kiroldegiko beheko gimnasioko lurra aldatu.

■ Noauaren lana balioan jarri eta bere ekarpena handitzeko hitzarmena sinatu.

■ Herriko eragile kulturalak ahaldundu zuzeneko laguntzekin eta azpiegitura egokiekin.

■ Usurbildar berriei harrera instituzionala egin urtean bi aldiz.

■ Eguneko zentroko eskaintza handitu.

■ Udalaren webgunea biziberritu.

■ Indarkeria matxista eta sexistaren aurkako protokoloa sinatu.

■ Emakumeentzat ahalduntze ikastaroak eskaini.

# EHBilduren herri batzarra, ostegunean Potxoenean

Herri batzarrean parte hartzeko deialdia luzatzen diete Usurbilgo EHBilduk, herritarrei. Batzarra ostegun honetarako, deitu dute 19:00etan Potxoenean.

"EHBildu gisara hurrengo hilabeteetan hainbat erronkari egin beharko diegu aurre. Hauteskunde dinamika guztiz gainditu gabe dugun honetan, garrantzia handiko beste hainbat gai ere baditugu agendan. Hala nola: EHBilduren eskaintza politikoa, EHBilduren komunitatea osatzeko aurreko herri batzarretan abiatu genuen prozesua, eta hondakinen inguruko Herri Galdeketa. Gai hauetaz aritzeko, herri batzarrera etortzeko gonbidatu nahi zaitugu", adierazi dute deitzaileek.

Honatx aipatu batzarrean jorratuko duten gai zerrenda:

■ Apirilak 7, osteguna.

■ Ordua: 19:00.

■ Tokia: Potxoenea.

■ Gai zerrenda:

1- Espainiar estatuko eta Euskal Herriko egoera politikoa.

2- EHBilduren eskaintza politikoa.

3- EHBilduren komunitatea osatzeko prozesua.

4- EAEko hauteskundeak eta lehendakarigaiaren hautaketa.

5- Usurbil. Hondakinen inguruko herri galdeketa.

■ Deitzailea: Usurbilgo EHBildu.

# Energia-pobreziaren aurkako mozioa

## PSE-EE ALDERDIAREN MOZIOAK PLENO OSOAREN BABESA JASO ZUEN BOZKETAN

Pobrezia energetikoari aurre egiteko mozioa onartu zuten martxoko udalbatza plenoan. Ahobatez onartu ere. Eguneko aztergaien artean baziren beste bi puntu: hilerri berriko 8. lotearen inguruko eskubideen esleitzea eta Udalbiltzaren udal ordezkaritza aldatzeko proposamena.

Ezohiko izaeraz egin zen plenoa, martxoko azken asteartea Pazko Astearekin egokitzen zelako. Astebetez aurreratu zuten deialdia eta hortik ezohikoaren izaera.



Martxoaren 22ko plenoan onartu zen alderdi sozialistaren mozioa.

### Herritarrei laguntzeko hainbat egitasmo

Pobrezia egoeran daudenei energia-hornidura ez mozteko neurriak hartzeko helburuarekin, Usurbilgo PSE-EE talde sozialistak mozio bat aurkeztu zuen.

Fermín Orúe-Echevarría udal zinegotziak azaldu zuenez, hasiera batean motzagoa zen bere proposamena. Udaletxeko gainontzeko bozeramaleei igorri zien mozio-proposamena, "eta EH Bilduk puntu batzuk jaso nahi zituela adierazi zidan. Hasierako mozioari beste hiru puntu gehitzea adostu dugu".

Zazpi puntuko idatzian, "energia-pobrezian dauden bizikidetza-unitateak eta kolektiboak identifikatzeko adierazleak definitu ditzala eskatzen die Udalak Energiaren Euskal Erakundeari eta Gizarte Politiketako Sailari, Aldundiekin eta Udalekin batera. Txosten horretan zehaztu beharko lirateke pobrezia egoerari aurre egiteko neurriak".

MOZIOAN JASOA

***Udalak izaera sozialeko entitateekin hitzarmenak sinatzeko konpromisoa hartuko du, "horren bidez aholkularitza zerbitzu bat eman diezaien bai energia-pobrezia egoeran daudenei bai egoera larrian dauden herritarrei ere"***

Pobrezia egoeran dauden usurbildarrei faktura ez ordaintzeagatik elektrizitate, gas edo ur hornidura moztu bazaie, edo moztu beharrean badira, zerbitzua "berriro ezartzeko behar diren koordinazio-mekanismoak enpresa hornitzaileekin finka ditzala, eta behar izanez gero, hitzarmenak sina ditzala eskatzen dio udalbatzak Udal Gobernuari".

Halaber, oinarrizko Gizarte Zerbitzuen bitartez, "Gurutze Gorriarekin elkarlanean jardutea, eta laguntzen programa gure herritarrei helaraztea".

Eusko Legebiltzarrean hartuta dauden erabakiak berretsi zituen Udalak. Nolanahi ere, "Eusko Jaurlaritzari eskatzen zaio programa bat garatu eta hornitu dezan, udaletako gizarte-laguntzekin koordinatuta, eta izaera erabat publikoa izango duena". Antzeko ekimena eskatzen zaio Espainiako Gobernuari ere.

Eta azkenik, Udalak izaera sozialeko entitateekin hitzarmenak sinatzeko konpromisoa hartuko du, "horren bidez aholkularitza zerbitzu bat eman diezaien bai energia-pobrezia egoeran daudenei bai egoera larrian dauden herritarrei ere".

PSE-EEko udal zinegotziak aurkeztu zuen mozioak gainontzeko alderdi guztien babesa jaso zuen eta ahobatez onartu zen.

### Alaitz Aizpurua, udal ordezkaria Udalbiltzan

EHBilduko zinegotzia izango da Usurbilgo Udalak Udalbiltzaren organoetan izango duen ordezkaria. 2015eko udaberrian, udal legealdia hasi berritan, Xabier Arregi alkatea izendatu zuten funtzio horretarako. Baina orain, EH Bilduren udal gobernuak egokiago ikusi du lan hauetarako Alaitz Aizpurua zinegotzia izendatzea. Eta aldaketa hori egiteko proposamena landu zen martxoko plenoan. Aldaketa-proposamenak EHBildu eta PSE-EEren babesa jaso zuen. EAJ-PNV alderdiak abstentziora jo zuen.

### Hilerri berriko 8. lotea esleitu da

Udalak hilerri berrian eskainitako hilobien gaineko eskubideak esleitu ziren pleno berean. 8. loteari dagozkion eskubideak, zehatzago esanda. Ahobatez onartu zen plenora eramandako proposamena.









# Errenta aitortzeko garaia

2015eko diru-kontuak argitzeko garaia heldu da. Abiatzear da, 2015eko Errenta aitortzeko kanpaina. Momentuz, autolikidazio proposamena jasoko duzuenok, gipuzkoa.eus/ogasuna atarian kontsultatzeko aukera duzue. Eskutitz bidez ere helaraztekoa da Ogasuna, egunotan. Aldundiak dituen aurreikuspenen arabera, 200.000 proposamenetik gora bidaliko dituzte etxeetara. “Azken kanpainan 238.811 proposamen bidali eta haietatik 213.444 onartu ziren, hau da, bidalitakoen %89,4”, Gipuzkoako Foru Ogasunetik berri eman dutenez.



2015eko Errenta Aitorpena tramitatzeko epea apirilaren 11n irekiko da.

## Egutegia

2015eko Errenta Aitorpena tramitatzeko epea, astelehenean, apirilaren 11n irekiko da. Honatx kontuan hartzeko zenbait data:

- Apirilaren 6tik aurrera: autolikidazio proposamenak Ogasuneko web orrialdean ikusteko aukera. Proposamenok eskutitzez bidaltzen hasiko da Ogasuna.
- Apirilak 11-ekainak 25: autolikidazio proposamenak onartzea. Onartzeko bideak: 902 100 040 edo gipuzkoa.eus/ogasuna
- Apirilak 15-ekainak 6: errenta mekanizaturako hitzordua eskatzea (autolikidazio proposamena jaso dutenek, apirilaren 19tik aurrera). Oharra: epea luzatu daiteke, ordu libreak egonez gero.
- Apirilak 18-ekainak 25: aitorpenak aurkezteko epea.

Informazio gehiago eta hitzorduak eskatzeko: 902 100 040 edo gipuzkoa.eus/ogasuna

## Hobaria, NOAUA!ko bazkideontzat

Aurten 20 urte beteko dituen NOAUA! Kultur Elkarteko bazkide izateak abantaila bat baino gehiagoz gozatzeko aukera eskaintzen du. Baita urtemuga berezi honetan ere. Adi, zuetako askok hilabete honetatik aurrera tramitatu beharko duzuen Errenta Aitorpenari. NOAUA!ko bazkide zaretenoi hobaria aplikatuko zaizue, iaz NOAUA!ko bazkide izan eta zuen izen abizenak eta NAN zenbaki osoa (letra eta guzti) eman diguzuenoi bai behintzat.

Hala egin ez duzuen bazkideok, datorren urteko errenta aitorpenean NOAUA!ko bazkidetza kontuan hartzea nahi baduzue, hobaria aplikatzea nahi bazenute alegia, deitu 943 360 321 telefono zenbakira, idatzi elkartea@noaua.eus helbidera edo etorri NOAUA!ko egoitzara, eta eman zuen izen abizenak eta NAN zenbaki osoa, letra eta guzti.

## Sutegi udal liburutegiko txokoa

# 2015. urtean Sutegi liburutegian mailegatuenak (eta II)

**Euskaraz, eleberriak**
- Iñaki Irasizabal
*Aita gurea* (Elkar, 2015)
- Katixa Agirre
*Atertu arte itxaron* (Elkar, 2015)
- Elena Ferrante
*Adiskide paregabea* (Igela, 2014)

**Gazteleraz, eleberriak**
- Martin Abrisketa
*La lengua de los secretos*, 2015
- Parinoush Saniee
*El libro de mi destino*, 2014
- Pierre Lemaitre
*Vestido de novia*, 2014

**Ikusentzunezkoak:**
- Anari, Zure aurrekari penalak (Bidehuts, 2015)
- ZAZ, Paris (Musika, 2014)
- Loreak (Pelikula, 2015)
- La isla mínima (Pelikula, 2014)

**Informazio gehiago:**
https://es.pinterest.com/sutegi05/

**Jarrai gaitzazu:**
@usurbib (twitter)
www.facebook.com/sutegi05/
@sutegi05 (instagram)



*Aita gurea*, helduen artean gehien mailegatu den eleberria.




Martin Abrisketarena izan da gaztelerazkoen artean nabarmendu dena.



Anariren azken diskoa izan da ikusentzunezkoetan gehien zabaldu dena.



Sutegiren berri gehiago Facebook, Twitter eta Instagram sareetan.



# Usurbil #lotsarikgabe

## praktikatu gurekin

**Izan zaitez berbalagun, mintzalagun, mintzakide...**
**Zure euskara hobetzeko aukera paregabea.**



**praktikatu**
mintzapraktika egitasmoak aek

**607 609 379**
**usurbil@aek.org**

**ETUMETA AEK**
Kale Nagusia, 45 behea
20170 USURBIL

# Apirilaren 23an, IV. Dantza Eguna

Orbeldi Usurbilgo Dantza Taldeak prest du apirilaren 23an ospatuko den Dantza Eguneko egitaraua. Dantza taldeen topaketa, erromeria edota herriko dantzariek azken hilabeteotan landu duten ikuskizuna plazaratuko dute bi aste barru frontoian. Honatx datorren laugarren Dantza Egunerako josi duten egitaraua:



Iazko Dantza Egunean giro ederrean aritu ziren. Aurten, Lekunberri eta Donostiako dantza taldeak gonbidatu dituzte. Goizetik kalejiran ibiliko dira eta erakustaldia eskainiko dute gero frontoian.

## Egun osoko festa

■ 11:00 Dantza Taldeei harrera. Partehartzaileak: Ortzadar Dantza Taldea (Lekunberri), Goizaldi Dantza Taldea (Donostia), Orbeldi Dantza Taldea (Usurbil).

■ 12:00 Kalejiraren hasiera. Herriko gune desberdinetan geldialdiak egingo dira dantza saioak eskaintzeko.

■ 13:30 Ekitaldi Nagusia frontoian.

■ 14:30 Dantzarien Bazkaria.

■ 18:00 Erromeria frontoian, Ortzadar taldearekin.

■ 22:30 "Kanpaiak Jotzean" ikuskizuna, Orbeldi Dantza Taldearen eskutik.

Antolatzailea: Orbeldi DT.

## Egun berean, Tximeletaren Topaketa

Aurreko urteetan bezala, Dantza Egunez gimnasia erritmikoa ikusteko aukera aparta izango da. Kirol jarduera honetan aritzen diren Tximeleta taldeen Topaketa ospatuko da apirilaren 23an egun osoz, Oiardo Kiroldegian, 09:00-18:00 artean. "Donostia, Pasaia, Oiartzun, Usurbil, Astigarraga eta inguruko 20 ikastola eta ikastetxe desberdinetako 300 neska-mutil inguruk parte hartuko dute", adierazi dute antolatzaileek. Topaketarako sarrera doakoa izango da.



300 neska-mutil inguru batuko dira Oiardo Kiroldegian. Topaketako ikuskizunetara sartzeko sarrera doakoa izango da.







# Itzulia dela eta, N-634 errepidea moztuko dute

Astelehenaz geroztik abian den Euskal Herriko Itzulia Usurbildik igaroko da aurten. Ostegun arratsaldean, 14:30ak aldera helduko da Errekaldetik. N-634 errepidetik, Txikierdi, Kaxkoa eta Aginaga zeharkatuko ditu. Guztira, Lesakan hasi eta Orion amaituko den laugarren etapako 165 kilometrotik, dozena bat kilometro, udalerri honetako lurretan barrena egingo ditu txirrindularien Itzuliak:




**Lasterketa ostegun eguerdian igaroko da Usurbildik barrera. Argazkia: DV.**

### Lesaka-Orio artekoa

**Apirilak 7, osteguna**

- 12:50 Irteera Lesakatik.
- 14:32 aldera, Hernanitik, Galarretatik barrena Errekaldeko biribilgunera iritsiko da Itzulia.
- 14:35 aldera, Txikierdira.
- 14:37 aldera, Usurbilgo sarrerara.
- 14:39 aldera, Usurbilgo irteerara.
- 14:42 aldera, Aginagara. Handik, Orio aldera joko dute.
- Orioko hondartzan amaituko da etapa, 17:10 aldera.

**Azken etapak**

- Apirilak 7 osteguna, 4. etapa: Lesaka-Orio.
- Apirilak 8 ostirala, 5. etapa: Orio-Arrate.
- Apirilak 9 larunbata, 6. etapa: Eibar-Eibar (bakarkako erlojupeko saioa).

**N-634 MOZTUKO DUTE**

***"Ostegun eguerdian, N-634 errepidea itxi egingo dute Errekaldetik Oriora tartean, Itzulia igaroko den unean"***

**Errepide mozketak**

Adi honenbestez, ostegun eguerdi partean Usurbildik Donostia nahiz Orio aldera joan asmo duzuenoi, nahiz udalerrira zatoztenoi ere; N-634 errepidea itxi egingo baitute Errekaldetik Oriora tartean, Itzulia igaroko den unean. Hori ostegunean. Ostiralean, Aia-Orioko tren geltoki paretik abiatuko da Itzuliko bosgarren etapa, 13:00ean. Honenbestez, ordu horren bueltan ere, apirilaren 8an, itxita egongo da N-634 errepidea, Orio inguruetan.

**Informazio gehiago:**
itzulia.eus

### Haimar Zubeldia, lehiakideen artean

Aspaldiko partez, Euskal Herriko txirrindulari itzulia Usurbildik igarotzen ikusiko dugu. Eta lehiakideen artean, etxeko txirrindulari bat; Trek-Segafredo taldearekin lehiatzen ari den Haimar Zubeldia herritarra. N-634 errepide ertzeetara gerturatuta ikusi ahal izango da Itzulia. Bertaratu ezin duzuenok, Euskal Telebistak zuzenean eskainiko du etapa.

## Kirolaz gozatzen

Argazkikoak 6-12 urte arteko gaztetxoak dira, Usurbil Futbol Taldeak antolaturiko kirol txokoetan partehartzen. Igerian, eskubaloian, eskupilotan, saskibaloian, boleibolean, hockeyan, futbolean, herri kiroletan edota bulderrean eskalatzen aritu ziren. Haur eta begiraleekin batera, zenbait guraso ere animatu ziren futbolean aritu ziren egunean, kirolean egitera. Parte hartze oso ona eta giro ederrean joan zitzaien astea.



**Usurbil FTren Kirol Txokoetan primeran igarotzeko aukera izan dute.**

# Euskadiko Txapeldun izateko bidean



Lehen postuetan sailkatzen diren taldeek Espainiako Txapelketa jokatu ahal izango dute.

Urduri, baina gogotsu. "Ondo joango zaigulakoan nago", dio Mikel Alzagak, Usurbil K.E.-ko jubenil nesken eskubaloi taldeko entrenatzaileak. Denboraldi borobil askoa egin ostean, Euskadiko txapelketako azken faserako sailkatu dira. Asteburuan jokatuko dute Ermuan. Lehen postuetan sailkatzen diren taldeek gainera, Espainiako txapelketa jokatu ahal izango dute.

Fase eta Kopako neurketa artean harrapatu dugu taldea eta aurten, Gipuzkoako eta Euskadiko selekzioko hautatzaile laguntzaile aukeratu duten entrenatzailea. Bidasoan jokatu ostean, aurten Usurbila itzuli den Mikel Alzagak NOAUA!rekin hitz egiteko tartea hartu du lerrootan.

**Euskadiko txapelketako amaiera faserako bidea aldapatsua izan da, bide erraza?**

**Mikel Alzaga:** Denboraldi hasierako helburua, kadete eta jubenilen taldeak salbatzea zen. 8 taldetik bi jaisten ziren eta justu seigarren geratu ginen. Ez genuen fase honetan sartzea espero. Sailkatu diren taldeen artean, talde txikiena gu gara, baina aurkariei nahiko gerra eman diegu ligan.

*MIKEL ALZAGA*

***"Aurkariak ezagutzen ditugu eta aurkariek gu ere bai. Orain inoiz baino sendoago dago taldea. Ezustekoren bat emateko aukera izango dugu"***

**Denboraldiko bigarren zatia gainera, neurketa guztiak irabazita amaitu duzue?**

Euskadiko Txapelketako amaiera fase honetan sailkatzeko, bi partida berdindu eta beste guztiak irabazi genituen. Sailkapenean lehenengo postuan geratu ginen, baina gol kopuruagatik bigarren.

**Amaiera fase honek, taldea ze unetan harrapatzen du? Zer aurreikuspen dituzue?**

Aurkariak ezagutzen ditugu eta aurkariek gu ere bai. Orain inoiz baino sendoagoa dago taldea. Kadeteekin batera, taldea egiten gara eta ezustekoren bat emateko aukera izango dugu.

**Zer emaitza beharko zenukete, Euskadiko txapeldun izateaz gain, Espainiako txapelketa jokatu ahal izateko?**

Hasiera batean lehen bi taldeak bakarrik sartzen ziren, ia urtero gertatu ohi den moduan. Azken unean ordea Federazioak esan zuen hiru talde sartuko zirela eta hori guretzat oso albiste ona da. Behintzat, lehen hiru talde horien artean geratzea nahi genuke.

**Espainiakoa jokatzeko sailkatuko bazinate, Euskadiko Txapelketako azken fasearen segidan dator?**

Dena segidan dator. Lehen hiru postuetan sailkatzen bagara, zuzenean Espainiako sektorea jokatzera goaz. Ez dakigu ezer, non izango den... Sailkatzen bagara, gustura joango gara.

**Prestaketa lan egun mugituak izango dira honako hauek? Oporrik ez zenuten izango?**

Prestatzeko egun zailak, baina bizitzeko polita dira hauek. Oporrik ez dugu izan. Justu kontrakoa, lan bikoitza egin dugu. Entrenamendu saio bikoitzak, indar gehiagorekin egin ditugu, sendo iristeko. Oso motibatuta eta gogotsu gaude.

## "Gozatzera goaz"

**Hitzorduokin denboraldia bukatutzat emango duzue?**

Orain fasean dugu burua. Baina senior neskek zer egingo duten zain gaude. Mailaz igotzen badira, guk ere hori nahi genuke, gure jubenilak ere hor igoko dira. Ahal dugun neurrian, haiek laguntzera goaz baita. 9 gara eta 6 jokalari uzten ditugu. Beraiek igotzen badira, guk maila handiagoa beharko dugu beraiekin igotzeko. Oraintxe Kopako txapelketa ere hastera doa. Denak batera harrapatu gaitu.

**Asteburuko faseari begira, taldeari hitz batzuk.**

Urte polita izan da honakoa, nik uste orain gerra emango dugula, dena merezi dugula. Gozatzera goaz. Oraintxe bertan, besteei gerra eman, ahal dugun sailkapeneko postu gorenean amaitu, eta ahal bagenu irabaztera joango gara. Kamiseta bat atera dugu, "helburu txikiak, handi bihurtuz" dioena. Gure helburuak txikiak dira baina seguru handi bihurtuko direla.

# Selekzioko hautatzaile-laguntzaile izateko aukeratua

**NOAUA! Hautatzaile-laguntzaile ere izendatu zaituzte?**
**Mikel Alzaga:** Hugo Sanchez da Euskadiko zuzendari teknikoa eta bera ere kadete nesken entrenatzailea da. Titulu bat atera nuen Ermuan. Berak eman zuen ikastaroa. Behin deitu zidan, kadeteekin laguntza beharko zuela esanez. Orain Gipuzkoako selekzioa kudeatzen dugu eta Euskadikoa hurrengo urterako.

**Asteburutan antolatzen diren selekzioko kontzentrazioetan zein da zuen egitekoa?**
Klubean egiten dugunaren antzekoa. Maila handia duten jokalariekin entrenamendu saioak egiten ditugu, defentsa eta erasorako moduak prestatzen ditugu.

**Jokalarien hautaketa nola egiten da?**
Normalean, beste kluben partidak ikustera joaten gara. Partida bat baino gehiago ikusten



Gipuzkoako Selekzioan ere ari da Alzaga, eta datorren urtean Euskadikoan.

*MIKEL ALZAGA*

***"Astelehenetik igandera egunero kiroldegian nago. Hemen ez bada, kanpoan hautatzaile gisa. Topera nabil baina gogotsu"***

saiatzen gara. Klubetara deitu eta entrenatzaileekin ere hitz egiten dugu, ikusteko nork duen maila hobea. Gero guk ikusi eta baloratzen ditugu.

**Hainbat usurbildar izan dira hautatuak selekzioetarako, zer ezaugarri dituzte jokalariok?**
Egia esan Usurbilek, hain herri txikia izanik, nahiko gerra ematen du eskubaloian. Urtero beti ateratzen da jokalaririk. Orain ere baditugu batzuk Euskadirekin, beste bat Espainiakoan. Maila handia dago.

**Jokalari, entrenatzaile, hautatzaile… Eskubaloi munduan bada egiteke duzun beste ezer?**
Aurten astelehenetik igandera egunero kiroldegian nago. Hemen ez bada, kanpoan hautatzaile gisa. Topera nabil baina gogotsu. Gustuko dudan kontua da eta ez naiz kexatzen.

## Euskadiko Txapelketako amaierako fasea Ermuan

**Apirilak 8, ostirala**
Aiala ZKE-Usurbil K.E.
Errotabarri-GF Zuazo

**Apirilak 9, larunbata**
Errotabarri-Usurbil K.E.
GF Zuazo-Aiala ZKE

**Apirilak 10, igandea**
Usurbil K.E.-GF Zuazo
Aiala ZKE-Errotabarri

# Senior neskak ere, amaiera fasearen atarian

Orain arteko neurketa guztiak irabazi dituzte. Partida bakarrean amaitu dute aurkariekin berdinduta. Asteburuan jokatu duten jardunaldian izan da. "Baina berdinketa hori dela eta, matematikoki lehen postuan sailkatu dira amaierako faserako, jardunaldi baten faltan", berri eman diote NOAUA!ri Usurbil Kirol Elkartetik. Gauzak honela, jubenil nesken antzera, senior nesken eskubaloi taldeak ere Euskadiko amaierako fasea jokatuko du, apirilaren 15etik 17rako asteburuan. Zehazteke dago txapelketa hau non jokatuko den.



Apirilaren 15etik 17ra Euskadiko amaiera fasea jokatuko dute.

Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako lau talde onenak lehiatuko dira, eta bertan izango dira usurbildarrak ere. "Bi onenek Espainiako Zilarrezko Ohorezko Mailarako igoera fasea jokatuko dute", berri eman du Usurbil K.E.-k.

## Estitxu Berasategi Espainiako selekziorako hautatu dute berriz ere

Martxoaren 18tik 23ra, Espainiako eskubaloi selekzioak Guadalajaran egin zuen kontzentrazioan parte hartzera gonbidatu zuten. Orain berriro deitu dute Estitxu Berasategi Eizagirre, apirilaren 10etik 13ra berriz Guadalajaran egingo den jubenil nesken estatu mailako taldearen kontzentraziora. Hiru egunez entrenamendu saioak burutuko ditu Usurbil Kirol Elkarteko jokalariak. Zarautz eta Ermuako jokalari bana ere deitu dute hitzordura.

# Mintzalagun gehiagoren beharrean

Aitziber, Arantxa, Jexux Mari, Itzalai, Janire... Eta hala hogeitik gora lagun zenbatu genitzake. Hogeitik gora herritar egun, gehiago izan dira azken sei urteotan, eta kide berriak ere erakarri nahi dituzte aurrera begira. Une honetan bereziki bidelagunen beharrean baita, Etumeta AEK euskaltegiak, NOAUA! Kultur Elkarteak eta Usurbilgo Udalak sustaturiko Mintzalagun egitasmoa. Izena emanda dauden zenbait bidaiari (edo "euskaldun berri"), bidelagun edo "euskaldun zahar" gehiagok izen emateko zain dira.



Izen-ematea edozein unetan egin daiteke.

Hala adierazi zuten egitasmo honen sustatzaileek, jai egunon aurretik Potxoenean antolatu zuten Mintzalagunen lehen topaketan.

Lagun arte giro ederrean euskara ahotan hartzen dutenen lana errekonozitu nahi izan zuten hitzordu xume honen bidez, Mintzalaguneko esperientziak partekatu eta kide berriak parte hartzera gonbidatzeaz gain. Bertaratu zirenek argi zioten; mintzalagun izaten hasi, eta lagun izaten amaitzen dute. Euskara, bildu, elkar ezagutu eta harremantzeko bitartekoan bihurtzen da. Euskalduntzen ari diren bidaiarientzat, Mintzalagun baliagarria zela zioten, "beldurra galtzeko, euskaraz hitz egitera ohitzeko, hiztegia hobetzeko...". Bidelagunentzat pozgarria suertatzen da, euskara ikasten ari denak egiten dituen aurrerapausoak, alboan duen laguna euskalduntzeko bide horretan aurrera nola egiten ari den ikustea.

**MINTZALAGUN BILGUNEA**

***"Euskara, batu, elkar ezagutu eta harremanatzeko bitartekoan bihurtzen da"***

### Izen ematea zabalik beti

Lerrook irakurtzen ari zaren bat baino gehiago izan zaitezkete Mintzalagunak; bidaiari zein bidelagunak. Parte hartzeko interesa duzuenok, euskaltegian datu pertsonalen orri bat bete eta egoki adierazi, zer ordu eta egunetan ahal duzuen parte hartu egitasmo honetan. Ez dago zertan euskaltegian matrikulatua egon beharrik, Mintzalagunen parte hartzeko. Euskara ikasten ari denari euskaltegiak zehaztuko dieten gutxieneko maila bat izan behar du. Bidelagunak edo "euskaldun zaharrak" ez du irakasle izateko mailarik behar. Izen ematea urtean zehar, edozein unetan egin daiteke. Eta doan noski.

### Informazio gehiago jasotzeko bideak

**Etumeta AEK Euskaltegia**
607 609 379
usurbil@aek.eus
muntteri.blogspot.com.es
aek.eus

**NOAUA! Kultur Elkartea**
943 360 321
elkartea@noaua.eus

**Usurbilgo Udala, Euskara Saila (Potxoenean)**
943 371 999
euskara@usurbil.eus

## Kultur udal agendak, 10 urte

10 urte bete ditu, udalerri honetako kultur eskaintzaren berri ematen digun hileroko kultur agendak. Usurbilgo Udalaren eta eragileen arteko elkarlan eta koordinazioari esker argitaraturiko agenda, 2006ko apirilean kaleratu zen lehen aldiz. Zenbaezinak dira ordutik antolatu diren ekimenak eta ekimenok prestatzen ari-tu diren eragileak. Usurbil herri bizia denaren ispilu izan da eskuorri hau.

### Paperean eta sarean

Urtemuga hautatu du Udalak hain zuzen, hilabete honetako agendaren azalerako. Paperean ohi biano tamaila handiagoan edo kultura.usurbil.eus atarian eskura dezakezue.




### Oinarrizko Internet ikastaroa, KzGunean

Apirilean goizez, 09:00-13:00 artean zabalduko dute KzGunea. Hemen duzue, aurreikusiak dituzten ikastaroen berri:

-Apirilak 18-29, 09:00-11:00: "Oinarrizko Interneta. Nabigatzen eta posta elektronikoak bidaltzen ikasi".

-Maiatzak 2-11, 16:00-18:00: "Komunikatu zaitez Sare Sozialen bitartez".

# Ingeles udalekuak Udarregi Ikastolan

2004-2010 urte artean jaiotako gaztetxoentzako ingeles udalekuak antolatu ditu Udarregi Ikastolak, ekainaren 27tik uztailaren 22ra. Ohartarazi dutenez, "jatorrizko ingeles hiztunak diren hezitzaileek" gidatuko dituzte. Ingeles udalekuotan izen emateko epea zabalik egongo da apirilaren 23ra arte. Apuntatzeko, gerturatu ikastolako idazkaritzara.



**Ikastolen Elkarteak sustatzen du Enjoy English programa. Udaleku hauetan izena emateko epea apirilaren 23an amaituko da.**

Izena emandako ikasle kopuruaren arabera zehaztuko da udalekuotako prezioa. Baina antolatzaileek aurreikusten dutenez, gutxi gorabehera 300 eurokoa izango da gastua. Doakoa, hezitzailea etxean hartzen duen familiarentzat. Adin tartearen araberako bi multzo hauetan banatuko dira ikasleak:
A taldea: 2008-2010 urte artean jaiotako haurrentzat.
B taldea: 2004-2007 urte artean jaiotako haurrentzat.

### Haur Eskolako matrikulazioa

2016-17 ikasturterako izen ematea, apirilaren 18tik maiatzaren 4ra. Matrikulazioa goizez bideratu beharko da, 09:30-12:30 artean.

Horretarako ordea, aurrez hitzordua eskatu beharko da, 943 374 061 telefono zenbakian.

Matrikulazio epearen baitan, apirilaren 26rako ate irekien eguna antolatu dute; 17:00etan euskaraz, 18:00etan erdarazko saioa.

# Ziortzaren udako kanpaldirako aurre inskripzio epea ixtear da

Lagun arteko "abentura bila zabiltza?", hala bada, Ziortza Gazte Elkarteak badu zuentzako proposamen eder askoa hurrengo oporraldirako, uda parterako alegia. Uztailerako kanpaldia antolatu baitute, Usurbilgo Udalaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzaz.



**Ziortzako begiraleak oso serio ari dira prestaketa lanetan. Argazkia: Ziortza.**

Ohi bezala, bi txandatan banatuko dute kanpaldia; lehenengoa uztailaren 5etik 19ra, DBH-ko ikasleentzat izango da. Bigarrena, uztailaren 19tik 29ra LH 5-6 mailakoentzat. "Anima zaitez!", luzatu dute gonbita.

LH 5-6 eta DBH ikasten ari direnentzako antolatu duten aisialdiko ekimenerako izena aurrez emateko epea, ostiral honetan, apirilaren 8an itxiko dute.

Izen emate orriak, Ziortza Gazte Elkarteak Facebooken duen atarian, Parrokian edota Sutegi liburutegian eskuratu ditzakezue. Esku-orria datuekin beteta, Parrokiko postontzian utzi beharko da, edo bestela, datuak ziortzage@gmail.com helbidera bidali. "Ez dira epez kanpoko izen emateak onartuko", ohartarazi dute antolatzaileek. Plaza kopurua mugatua izango da.

### Argibide gehiagorako:

ziortzage@gmail.com edo WhatsApp bidez, 639 879 409 telefono zenbakian.

## Informazio bilerak: "DBH bukatu eta gero zer?"

Galdera horri erantzuteko bilera sorta antolatu du Udarregi Ikastolak, apirilaren 11tik 14ra. "Urtero bezala, aurten ere, orientazio departamenduak DBH bukatu ondoren egin daitezkeen ikasketa eta lanbide-irtenbideei buruzko bilera batzuk antolatu ditu", ohartarazi dute. Hemen hitzorduon agenda:

**Apirilak 11, astelehena**
■ 17:00 Donostiako Santo Tomas Lizeoa (Batxilergoa).

**Apirilak 12, asteartea**
■ 17:00 Oteitza (Zarautz, Batxilergoak eta Lanbide-Heziketako zikloak).
■ 18:00 Zubietako Lanbide Eskola (Lanbide-Heziketako zikloak).

**Apirilak 13, asteazkena**
■ 17:00 Donostiako Zurriola eta Barandiaran (Batxilergoak eta Lanbide-Heziketako zikloak).

**Apirilak 14, osteguna**
■ 17:00 Lasarteko Institutua (Batxilergoak).

■ Oharrak:
-Bileren tokia: DBHko eraikineko bideo-gela.
-Bilerak, euskaraz eta gaztelaniaz izango dira.

■ Informazio gehiago: udarregi.eus



**DBHko eraikineko bideo-gelan egingo dira bilerak.**




# Tapak eta aurkibideak prest

**Agur esan diogu 2015 urteari. NOAUA! guztiak bildu eta 2015eko tapa eta aurkibidearekin koadernatzeko garaia da. Bazkide zaretenok, azala eta aurkibidea doan jaso ditzakezue NOAUA! Kultur Elkarteko egoitzan**

Tapa eta aurkibidea doan eskuratzen dituzte bazkideek. Bazkide ez direnek, aldiz, 3 € ordaindu behar dituzte tapa edo azalarengatik, eta 1,20€, aurkibidearengatik. Koadernatzea, **Lizardin** edota **Lauroken** egin dezakezue. Hori bai, koadernatzea berdin-berdin ordaindu behar dute bazkideek eta bazkide ez direnek.



# Urte amaierarako eraikitzen hasi nahi du erraustegia Aldundiak

Urte amaieran “hasiko gara eraikitzen hondakinen arazoari erabateko konponbidea emango dion zentroa”, hitz hauekin iragarri zuen Jose Ignacio Asensio Gipuzkoako Foru Aldundiko ingurumen diputatuak, Markel Olano Ahaldun Nagusiarekin batera, martxoaren 22an Gipuzkoako Hondakinen Kon–tsortzioak eginiko batzarrean, 2016 hau amaitu baino lehen eraikitzen hasiko direla Zubietako erraustegia. Zehazki lau tratamendu planta kokatu asmo dituzte Zubietan. Honela aurkeztu dituzte:

- ■ Energia balioztatzeko planta bat, bi linea izango dituena eta 200.000 tona erretzeko eta elektrizitatea sortzeko aukera emango duena.
- ■ Tratamendu mekaniko-biologikoko zentro bat (TMB), errefusan agertzen diren baina birzikla daitezkeen materialak berreskuratuko dituena.
- ■ Biometanizazio-planta bat.
- ■ Zepak balioztatzeko zentro bat.


Markel Olano Ahaldun Nagusia eta Jose Ignacio Asensio Ingurumen diputatua.

### Aldundiaren aurreikuspenak

Udaberri honetan bertan hasiko da gauzatzen Aldundia, hondakinak errausteko duen plana. Honatx Diputazioak eman asmo dituen urratsak, datozen hilabeteotan:

- ■ Udaberri honetan: “Zubietako hondakinen zentroa” deitzen diotena eraikitzeko baldintza-agiriak esleituko dituzte. Lehen fasean, “balioztatzeko planta eta TMB zentroa eraikiko dira” dio Aldundiak. 200 milioi euro inguruko kostua izango omen du.
- ■ Irailean: eraikitze lanak esleituko dituzte.
- ■ Urtea amaitu baino lehen: eraikitze lanak hasiko dituzte.

*JOSE IGNACIO ASENSIO*

***“Urte amaieran hasiko gara eraikitzen hondakinen arazoari erabateko konponbidea emango dion zentroa”***

### GHK pribatizatzearen aurka

Zubietako proiektua “formula publiko/pribatu baten bidez (PPP- Public Private Partnership)” kudeatu asmo du Diputazioak, “obra publikoko emakidaren kontratupean. PPP irudi horren bitartez, Kontsor–tzioak bazkide pribatu batekin kontratatuko du plantaren eraikuntza, finantziazioa, jarduna eta mantentze integrala; 30-35 urteko epea izango duen kontratua izango da. Bazkide pribatu horrek finantzatuko du osorik jarduna, bere arriskupean, eta horren ordainetan plantak sortzen duen energia ustiatu ahal izango du, gehi GHK-k zerbitzuagatik ordainduko duen zenbatekoa”, dio Diputazioak.

Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioa pribatizatzearen eta erraustegiaren aurka elkarretaratu ziren hainbat lagun hain zuzen, Aldundiak azalpen guztiok eman zituen GHK-ren batzar hau ospatu zen egun berean, martxoaren 22an. Diputazio atarian bildu ziren.



### “Gipuzkoan ez dugu horrelakorik nahi”

Kezka eta haserrea eragin du sare sozialetan, otsailaren 26an Anberesen (Flandria) kokatua dagoen erraustegian izandako leherketa ikaragarriak.

Leherketaren aurrean hedabideen isiltasuna salatu dute batzuek, erraustegiaren arriskuaz ohartarazi besteek. Eta Zubietan eraiki nahi duten plantaren aurkako aldarria indartu du. “Errefusaren botere kalorifiko baxuagatik, zaborra erre ahal izateko gasa erabiltzen da eta honek eragin du leherketa. Gipuzkoarron ekonomian eta osasunean erraustegiak suposatzen duen arriskuaz gain, leherketa arriskua ere badu! Gipuzkoan ez dugu horrelakorik nahi!”, adierazi du Osasuna eta Errausketa Ikerketa Taldeak, Facebook bidez.

### Errausketaren aurkako agenda

**Apirilak 15, ostirala**

Udarregi Ikastolako jangelan:

- ■ 19:00 Jakoba Errekondoren hitzaldia “Bizi baratzea”.
- ■ 20:30 Afari herrikoia borondatearen truk.
- ■ Ondoren, “Hil ondoren errraustuko ez dituzten kantarien biltzarra”.









# Erraustegia, GHK-ko tasen igoeraren atzean

Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioak urte amaieran iragarri zuen tasen igoera neurriz gainekoa salatu du Usurbilgo Udaleko gobernu taldeak, etxeetara bidali dituen gutunen bidez; erreusa tratatzeagatik %20 igo dute tasa Mankomunitate guztietan, %92 San Markoko udalei, organikoa tratatzeagatik.



**Erreusa tratatzeagatik %20 igo dute tasa Mankomunitate guztietan, eta %92 San Markoko udalei, organikoa tratatzeagatik. Baita Usurbilgoari ere.**

"GHKk aldebakartasunez mankomunitateei ezarritako errauste-tasa" honen atzean hain zuzen, Zubietan eraiki asmo duten erraustegia dagoela diote.

Hondakinak errausteko bidean, "lehen erabakia tasen igoera izan da" dio Udalak. Igoera onartezina dela diote, Gipuzkoan %43 birziklatzen denean Usurbilen hondakinen %83 birziklatzen baita. "Ez al lukete gehiago ordaindu behar gutxiago birziklatzen dutenek?", galdetzen du Udalak.

### "Bidezkoa dena ordainduko dugu"

"Dagokiguna, bidezkoa dena ordainduko dugu udal gisara, baina honekin batera jakinarazi nahi dizut gure eskuetan dugun guztia egingo dugula Zubietan errauste-planta eraiki ez dezaten, Gipuzkoak ezin duelako gehiago zorpetu, udal honek ez duelako gehiago ordaindu nahi beharrezkoa ez den azpiegitura batengatik eta, azken finean, beste alternatibak egon badaudelako, azken zazpi urteotan erakutsi dugun bezala", dio Usurbilgo Udalaren izenean Xabier Arregi alkateak.

Gainerako udalerriek Usurbilek hartutako bideari jarraitzen badiote, Gipuzkoak erraustegirik ez duela behar izango gogorarazten du alkateak.

*UDALAREN KEZKA*

***Igoera onartezina dela dio Udalak. Gipuzkoan %43 birziklatzen denean, Usurbilen hondakinen %83 birziklatzen baita. "Ez al lukete gehiago ordaindu behar gutxiago birziklatzen dutenek?", galdetzen du Udalak***

## NOAUA!ko bazkide izateagatik, sari ederrak irabazteko aukera

Oraingoan, Miguel Mari Garcia de Eulate Murgialdai izan da saritua. Bi lagunentzako otordua irabazi du Saizar sagardotegian. Zorionak eta milesker NOAUA! laguntzeko egiten duzuen ahaleginatik! Gainerako bazkideok adi, hurrengo saritua zuetako edonor izan daiteke eta.


**Miguel Mari Garcia de Eulate Murgialdari bi laguntzeko otordua egokitu zaio Saizar sagardotegian.**



### Larunbat honetan Mugimendu feministak deituriko manifestazio nazionala

Euskal Herriko Mugimendu Feministak manifestazio nazionala deitu du larunbat honetarako, apirilaren 9rako Gasteizen. 13:00etan abiatuko da Bilbo plazatik, "11 eraso 12 erantzun. Feministok prest!" aldarripean. Mobilizazio honen bidez, indarkeria matxista salatu, mugimendu feministaren kriminalizazioa arbuiatu eta bortizkeriaren inguruko hausnarketa sustatu nahi dute deitzaileek. 225 eragilek babestu duten mobilizazioarekin bat egin zuten baita, Martxoaren 8ko elkarretaratzera hurbildu ziren usurbildarrek. Informazio gehiago: feministokprest.wordpress.com

### Apirilak 9 larunbata, Gasteizen:

■ 11:30 Zumbareggaeton feminista Foru plazan. Gorputzu zure amorrua kalejira Alde Zaharretik.

■ 12:30 Kalejira Perkuneskekin, Foru plazatik.

■ 13:00 Manifestazioa, Bilbo plazatik.

Amaieran, kalejira Rafa plazara. Traspasos Dantza, Rafa plazan.

■ 15:00 Bazkaria Landatxon.

■ 16:30etik aurrera, Landatxon:

-Las Kapritxosas eta Feministalderen eskutik, antzerkia.

-Amarauna.

-Sorpresa.

■ 20:00etik aurrera, Gaztetxean: El Viruta, Tremenda jauría, DJ Tarantistak, Feminastrak. Afaria egongo da!

Antolatzailea: Euskal Herriko Mugimendu Feminista.

# “Nordic Walking” ikastaroa Oiardo kiroldegian

Oiardo Kiroldegiak antolaturiko ikastaroa oinarrizkoa izango da. Apirilaren 16an egingo da, larunbat goizez beraz, 10:00-13:00 artean.”Ibiltzeko eta kirola egiteko modu ezberdin bat da. Bi makilen laguntzaz praktikatzen da, ALFA izeneko teknika erabiliz, erritmoa du eta gorputzeko hainbat atal lantzen dira: hankak, besoak, bizkarhezurra, enborra... Eta gainera, ingurunearekin bat egiten duzu!”, berri eman dute antolatzaileek.

■ Ikastarorako izena, Oiardo Kiroldegian eman beharko da.



Apirilaren 16rako antolatu dute ikastaroa. Goizeko 10:00etatik 13:00era, Oiardo Kiroldegian.

■ Prezioa: 15 euro bazkideek, 30 euro bazkide ez direnek.
■ Makilak 5 eurotan alokatuko dira.
■ Argibide gehiagorako: 943 372 498.

## Futbola Haranen

**Apirilak 9, larunbata, 11:00**
■ Alebin neskak: Udarregi 6B-Udarregi 5
**Apirilak 10, igandea, 10:00-13:30**
■ Alebin federatua, Futbol Eskola.

## Eskubaloi partidak

**Apirilak 9, larunbata**
■ 09:30 Alebin mutilak, Buruntzaldea: Udarregi 5C-Udarregi 5A
■ 09:30 Alebin mutilak, Buruntzaldea: Udarregi 5B-Urnieta 5C
■ 10:30 Alebin mutilak, Buruntzaldea: Udarregi 6A-Urnieta 6B
■ 11:30 Infantil neskak, Gipuzkoako Txapelketa: Udarregi B Usurbil-Bergara K.E.
■ 12:45 Infantil mutilak, Gipuzkoako Txapelketa: Udarregi B Usurbil-Amenabar A ZKE
■ 15:45 Kadete neskak, Foru Aldundiko Txapelketa: Usurbil K.E. “B”-Ereintza B
■ 17:30 Jubenil mutilak, Gipuzkoako Kopa: Usurbil K.E.-Ereintza
■ 19:30 Senior mutilak, 1. Nazionala: Ucin Aluminio Usurbil-C.D. Egia Ur-Ze

**Apirilak 10, igandea**
■ 09:15 Alebin mutilak, Errendimenduko Gipuzkoako Txapelketa: prestakuntza saioa.
■ 10:30 Alebin neskak, Errendimenduko Gipuzkoako Txapelketa: Usurbil K.E.-Egia Eskubaloia
■ 12:15 Senior neskak, Euskal Liga: Usurbil K.E.-Aiala ZKE

# Baranbio-Altube ibilbidea osatuko dute igande honetan

Andatza Mendizaleen Kirol Taldearekin, “Gorbearen mendebaldeko mendialdean Burbona eta Odoriaga mendiak” ezagutzeko aukera izango da igande honetarako, apirilaren 10erako antolatu duten txangoan.

Irteerarako izen ematea itxita dago. Apuntatu direnek, goizeko 07:00etarako egon beharko dute Oiardo Kiroldegian. Handik abiatuko baitira autobusez.
Informazio gehiago:
andatzamendizale.info



Goizean abiatuko dira autobusez Kiroldegitik. Argazkia: Felix Aizpurua.

## Pilota partidak

**Apirilak 8 ostirala, Usurbilen 19:30ean**
Udaberri Lauterdiko Txapelketa
■ **Kadete Lehen Maila**
PAGAZPE (Aimar Iruretagoiena)
URNIETA (Aldunberri)

PAGAZPE (Imanol Galarraga)
ALDE ZAHARRA (Olarra)

■ **Nagusiak**
PAGAZPE(Asier Katalina)
INTXURRE (Zabala)

## Zozketa

Martxoaren 31ko ONCEren zozketan, azken lau zenbakiak 4020 izan dira. PAGAZPEk egin ohi duen zozketako zenbaki saritua hortaz 4020 izan da. Saria Saizar eta Aginaga Sagardotegian bina otordu.

## Eneko Furundarena, Infantil mailako goleatzaile onena



Martxoaren 27an Hondarribian ospatu zen infantil mailako 15. Eskubaloi Txapelketan goleatzaile onenaren saria jaso zuen Eneko Furundarena Usurbil Kirol Elkarteko jokalariak. Txingudi, Gipuzkoa, Bizkaia eta Nafarroako selekzioak lehiatu ziren hitzordu horretan. Mutilen eta nesken txapelketetan, Gipuzkoako Selekzioa nagusitu zen.

txirriStra
TABERNA

-Plater konbinatuak
-Ogitartekoak
-Pintxoak
Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!
USURBILGO HORTZ KLINIKA
FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA
Kale Nagusia 10, 1.C4 20170
Tlf 943 37 08 78 USURBIL

## OHARREI DAGOKIEN ARAUTEGIA

Orri honetan agertzen diren oharrak doakoak dira. Telefonoz edo emailez helarazi daitezke: 943 360 321 / erredakzioa@noaua.eus

Oharrak bidaltzeko azken eguna: astelehena, eguerdiko 12:00ak. Atal bakoitzaren goikaldean ipiniko ditugu berrienak. Oharra egokia ez dela erabakiko balitz, NOAUA!k ohar hori argitaratu gabe utziko luke.

## ETXEBIZITZA

### Salgai

Pisua salgai Munalurran, guztiz berritua, 60 metro, 140.000 euro. Tl: 636393237

Etxebizitza salgai Santuenea 21ean. 69 m2. Sukalde jangela, komuna, egongela eta bi logela. Hiriko gasa. Eguzkitsua. Dena kanporaldera. Prezioa 150.000 euro. Ramón 615149900.

Pisu bat salgai. 90 metro karratu. 3 logela, 2 bainugela, jan-egongela eta sukaldea jantokia aparte duela. 605 707 642.

2 gela, komuna, sukaldea eta sala dituen etxe bat erosiko nuke. Gehienez 90.000 euro. 689 58 39 21.

Bi gelako etxebizitza salgai. Komuna, hall, sukaldea. Eguzkitsua. 3. pisua igogailuarekin Muna Lurra kalean. 175.000 euro (620826891).

Etxe txiki eta merke bat erosi nahi nuke. Edo alokairu baxuko bat hartuko nuke. 615 758 476.

Etxea salgai (Kutxa gainean). 3 logela, egongela, sukaldea, komuna, trastelekua. Dena kanpoaldera. 607 572 106

Etxebizitza eta garaje marra salgai Munalurran. 4. pisua. 2 gela, egongela, komuna eta sukaldea. 163.000 euro. Tel. 646 663 405.

Pisu bat salgai Munalurran. Erreformatu berria. 690 15 36 31 (Ane)

Pisua salgai Urdaiagan. Trenbide-pasagunearen ondoan. 56m2. Pisu baxua. Berritua. Sukalde irekia, esekilekua, egongela, 2 logela eta komuna. Komuna salbu gela guztiak ditu kanpora. 90.000 euro. 646344847

Pisua salgai edo alokairuan Munalurran. 637 309 209.

Santuenean pisu bat salgai. Erreformatzeko, prezio onean, aukera ezin hobea.Iñaki (665736896)

Etxe bat salgai Munalurran. Dena kanpo aldera. 3 gela, sukaldea egongelarekin, komun bat, eta terraza bat armairu batekin eta dena itxita. Tel. 637 225 620.

Pisua salgai Kaxkoan. Pisu berria, lehen mailako materialekin egina. 608 227 462. Prezioa jaitsi dugu; orain, 36 milioi pezetatan

Etxea salgai Santuenea auzoan. 64 metro karratu. Dena kanpoaldera. Egoera ezin hobean. Merkea, 678 581 991.

### Alokairuan

3 logela dituen alokairuko pisu baten bila nabil, baina epe motz batean (urte 1) erosteko aukerarekin. Tel. 686 554 145. Ana.

Alokairuko pisu baten bila nabil Usurbilen, 3 logelekin posible bada. 648 220 432.

Alokairuko pisu baten bila nabil Usurbilen. Tel. 603 336 046.

Pisu bat alokairuan Puntapax-en. 3 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Duplex modukoa, oso oso berezi jarrita. 627 496 740. Carlos.

Pisu bat alokairuan Artzabalen. Beheko solairuan, terrazarekin eta oso egoera onean. Tel. 655 708 276.

Pisu baten bila nabil, altzariekin eta gehienez 550 euro. 661 378 340.

Alokairuko pisu baten bila nabil. Tel: 620 708 265 / 686 143 7866 .

Gela bat alokatzen dut Usurbilen. Emakume edo neska arduratsua izan behar du. Tel. 665 319 105.

Logela bat alokatzen dut. Pertsona 1 edo 2rentzat. Prezio ona. 657 535 299.

Alokairuko pisu baten bila nabil Usurbilen, nominarekin. 664885737.

Pisu baten bila nabil, txikia eta merkea. Txakurra daukat. 682 214 506.

Emakume bat gela baten bila dabil partekatzeko 17:30-18:30 deitu (Marisol). 674463942

## MOTORRA

### Salmenta, garajeak

Hiru lokal, komertzio edo garaje moduan salgai Santuenean. 16, 18 eta 42 metro koadrokoak. Argitsuak. 671 547 567.

Baju komertzial bat salgai Erdiko kalean. 62 metro koadro, solairuarte batekin. 600 369 013 / 943 371 827

Garaje itxi bat salgai 36,30 metro koadro. 2 kotxerentzat edo garaje-trastero moduan. Errekatxiki-Puntapaxetik. 653380557.

Oso argitsua den 70 metro karratuko lokal komertziala salgai Santuenea auzoan 671547567

Lokal komertzial bat salgai, 60 metro karratu. Erdigunean. Tel. 679 732 489.

Garaje itxi bila nabil. Motorra uzteko izango litzateke. 645720571

Bi garaje saltzen dira. Batera edo binaka. 21 eta 25 metro koadokoak Santuenea 17. 615149900.

Moto bat salgai, Kymco markakoa. People 125. 618 963 385.

2 Garaje (marra) salgai edo alokairuan. Biak batera edo aparte. Olarrondo inguruan. 607 333 966.

## LANPOSTUAK

### Lan eskaintzak

Atxega jauregian plater garbitzalea behar dugu. Interesatuok idatzi email bat: atxega@atxegajauregia.com

## LANPOSTUAK

### Lan eskaerak

Lan bila nabil, umeak edo pertsona helduak zaintzen. Interna moduan ere bai. Paperekin eta erreferentziekin. Tel. 667 281 660.

Lan bila nabil. Interna moduan, orduka edo baserrian lan egiteko. 631 108 012

Lan bila nabil. Interna moduan, orduka edo baserrian lan egiteko. 619 355 819

Mutil bat lan egiteko prest. Pertsona helduak zaintzen, baserrian animaliak zaintzen edo pintore bezala. 619 355 819

Neska bat lan bila dabil. Orduka edo interna moduan. Pertsona helduak edo umeak zaintzen eta garbiketan. Esperientzia eta erreferentziarekin. (Dokumentazioa egunean). Berehala lanean hasiko nintzateke. Tel. 632 797 416.

Senar-emazte gazte bat, lan bila dabil, baserri batean. Interno moduan edo orduka. Esperientzia handia eta erreferentziekin. Tel. 631 916 262 / 631 882 360.

Lan bila nabil. Pertsona helduak zaintzen edo beste lan batzuk egiteko. Esperientzia eta berehala lanean hasteko moduan. Tel. 631 916 262.

Lan bila nabil Usurbilen. Umeak edo pertsona helduak zaintzen. Esperientzia eta berehala lanean hasteko moduan. Tel. 631 882 360. Esperientzia zabala duen emakumea eskaintzen da haurrak zain-tzeko eta etxeko lanak egiteko. Edozein ordutan lan egiteko prest. 660 041 361

Lan bila nabil. Portalak edo etxeak garbitzen, umeak zaintzen... Tel. 688 889 214.

Neska bat eskaintzen da etxea zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko orduka. Disponibilitatea 9:00etatik 15:00tara. 629 110 310.

Erizain laguntzaile nazionala eskaintzen da. Tituluekin eta esperientziarekin edozein lanetan. Batez ere pertsona helduak zaintzen. Tel. 622 925 562.

Emakume euskalduna eskaintzen da, ume txikiak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko, goizez edo arratsaldez, abendutik aurrera. Oso arduratsua. 671 547 567.

Saltzaile edo administratzaile moduan, lan egingo lukeen 31 urteko emakume bat naiz. Tel. 675 703 163. Berta.

Emakume bat eskaintzen da, goizez, 2 edo 3 orduz etxeko garbiketak egiteko. Tel. 620 625 823.

Emakume bat eskaintzen da asteburutan pertsona helduak zaintzeko. Tel 646 756 555.

Neska gazte euskaldun bat haurrak arratsaldetan zaintzeko prest eskaintzen da. Esperientziaduna haurrak zaintzen eta udalekuetan. Tel. 661 626 500. (Maialen)

Mutil gazte bat LH eta DBH-ko ikasleei klase partikularrak emateko eskaintzen da. Tel. 617 916 242. (Oinatz)

Lan bila nabil. Edozein lan egingo nuke. Interna moduan ere bai. Umeak edo helduak zaintzen, garbiketa lanak egiten, jatetxeren batean harraskako garbiketak egiten, etab. Tel. 676 188 411



**Zorionak Aroa!**
Jada 6 urte! Ondo ondo pasa zure urtebetetzean. Muxu potolo bat etxekoen partez.



**Zorionak Jon!**
Happy 11th Birthday!! Ondo ondo pasa ta muxu handi bat etxeko denen partez!



**Zorionak!**
Martxoaren 20an zuen urteak izan ziren. Espero dugu ongi pasa izana. Muxu potolo bana etxekoen partez.

## Heriotzak



**Rosa Garcia Orive**
87 urterekin hil zen apirilaren 4an Usurbilen



**Ascension Uria Uria**
83 urterekin hil zen martxoaren 16an Usurbilen



**Manoli Orbegozo Lizarazu** 83 urterekin hil zen martxoaren 17an Usurbilen

**OHARRA:** Apirilaren 15ean ostirala aterako dugu hurrengo NOAUA!. Oharrak, zorion-agurrak, bidaltzeko azken eguna: apirilak 11. erredakzioa@noaua.eus

Pertsona helduak zaintzen lan egingo nuke asteburutan. Esperientziarekin. 657 708 895.

Pertsona bat eskaintzen da propaganda edo gutunak banatzeko. Tel. 943 364 527.

Mutil bat eskaintzen da, helduak zaintzeko, baserriko lanetan aritzeko edota edozein lanetarako. Interno moduan lan egiteko prest. Tel. 662 286 266.

Auxiliar geriatra eta sukaldari bat eskaintzen da, paper, esperientzia eta nazionalitatearekin, adineko pertsonak zaintzeko. 10 urteko esperientzia sukaldean, garbiketan. Arduratsua. 622 487 879.

Lan bila nabil. Baimen guztiak ditut. Esperientzia biltegiko lanetan eta banaketan. 657 535 299.

Pertsona helduak edo umeak zaintzen lan egingo nuke. Orduka, interna edo egunean lan egiteko. Papelekin eta erreferentziekin. 627 487 592.

Pertsona helduak edo umeak zaintzen lan egingo nuke. Orduka, interna edo egunean lan egiteko. Papelekin eta erreferentziekin. 631 321 981.

Erizain laguntzaile tituluduna eskaintzen da pertsona helduak zaintzeko. Bertakoa eta euskaraz dakiena. Tel. 622 925 562.

Nikaraguakoa eta 28 urteko mutila, pertsona helduak zaintzeko eskaintzen da. Interno moduan edo nahi den bezala. Badaki etxeko lanak egiten. 687 348 223.

Pertsona helduak zaintzen esperientzia asko duen mutil bat, lan bila dabil. Gauetan, orduka edo asteburutan. Tel 648 761 874.

Gauean laguntzaile moduan, orduka edo asteburutan lan egiteko neska bat eskaintzen da. Paperekin eta esperientzia askorekin. Gomendio askorekin. 638 602 597.

Neska bat eskaintzen da, helduak edo umeak zaintzeko. 695 602 828.

Arratsaldetan pertsona helduak zaintzen lan egingo nuke. 30 urteko esperientzia. 682 214 506.

Lan bila nabil. Garbiketan, plantxatzeko eta interna moduan ere bai. Larunbat, igande eta jai egunetan ere prest nago. 676 188 411.

Arratsaldetan lan egiteko prest nago. Pertsona helduak gauetan zaintzeko ere bai. 943 045 428.

Erizain laguntzaile bat eskaintzen da esperientziarekin. Pertsona heldu ezinduak edo amaieran dauden pazienteak zaintzeko. Etxean zein egoitzetan. 943 365 079 / 635 715 142.

Neska bat eskaintzen da garbiketa egiteko, pertsona helduak zaintzeko... Esperientzia, erreferentzia eta papelak.618 889 530.

Lan bila nabil. Orduka, umeak edo helduak zaintzen, etxeko lanak egiten... Interna moduan ere bai. Erreferentziak. 656 186 617.

Lan egingo nuke. Garbiketan... orduka. Gauetan pertsona helduekin lo egiteko edo zaintzeko edo konpainia egiteko prest nago. Tel. 676 188 411.

Emakume euskalduna adineko pertsonak edo haurrak zaintzeko prest. Klinika laguntzaile tituluarekin 688826968.

Pertsona helduak edo umeak zaintzen prest. Interna bezela ere. Edozein ordutegi. 608299579

Pertsona helduak edo umeak zaintzen lan egingo nuke. Interna bezela ere bai. Edozein ordutegi. Esperientziarekin. 722 575 781.

Pertsona helduak zaintzen edo garbiketan lan egingo nuke. Interna bezela ere bai. Edozein ordutegi. Esperientzia eta papelekin. 690146067.

Mutil bat lan bila dabil helduak zaintzeko edo baserrian lan egiteko. 690146067.

**BESTELAKOAK**

Artzai txakur bat oparituko nuke. Baserri edo pabeloia zaintzeko ona da. Bost urte ditu eta beltza da. Txerto eta mikro-txipa jarrita ditu. Tel. 943 365 228 / 660 093 071.

Landatan La mer kanpinean mobil home bat saltzen da. 656 791 676.

Kalexarren, azpiko kaleko garajeetan, katu txuri, marroia eta urre kolorekoa desagertu zaigu. 2015eko irailean jaioa. Norbaitek aurkitzen badu deitu: 943 371 220

Oraindik garantian dagoen sukaldeko indukzio plaka bat salgai. Tel. 645 701 879.

Emakumezkoen bizikleta bat erosiko litzateke neska batentzako. Tel. 636 051 625. Leticia.

Egurrarekin sua egiteko ekonomika berria daukagu salgai. 637974994

Borda baten bila gabiltza Usurbil inguruan. Gehienez 10.000 metro koadroko terrenoarekin. Telefono zenbakia: 608 703 669

Legorretako babarruna salgai. 10 eurotan kiloa. 657 714 355

Ume txaketa bat galdu da (marroia) Askatasuna plaza-Atxegalde bitartean 943110954

8-10 urteko haur baten tamainakoa den sudadera gorri bat galdu dugu. Letra grabatu beltzak ditu. Deitu telefono zenbaki honetara: 676 82 33 11

Babarrun beltza eta babarrun motz zuria salgai. Usurbilgo erriberan eta botikarik gabe ekoiztutakoa. 65 777 01 31 (WhatsApp).

Memoria txartela galdu da argazki kamerarena, aurkitu baduzu eraman NOAUA!ra mesedez.

Bosch markako garbigailu bat salgai. Urte bete pasatxo dauka. Berri berria dago. Deitu telefono zenbaki honetara: 943 363 201.

Haur-sila bat salgai. "Bebe confort" marka LA modeloa. Beltza eta berri-berria dago. Burbuja eta eguzkitakoarekin. Deitu telefono zenbaki honetara: 666 373 665.

Hiru plazako eta bi plazako sofak salgai, larruzkoak, egurrezko ertzekin. Egoera onean, 500 euro negoziagarri. usurbil72@hotmail.es

Hemengo urra erosiko nuke. Deitu telefono zenbaki honetara: 634 409 888.

Denborarik ez baduzu zure maskota paseatzeko, nik lagunduko dizut. Ordubeteko ibilbideak. Asteburutan. Telefono zenbakia: 688 888 176. Pablo.

**TRUKEAN, OPARI**

Inprimatzaileak, telebistak, patineteak, liburuak... Garbigunean. Doan hartu daitezke. Astelehenetik ostiralera: 10:15-13:00 / 16:00-19:00 artean. Jai egunak ez diren larunbatetan: 9:00-13:00 artean

# Telefono interesgarriak

| | |
|---|---|
| Udala | 943 371 951 |
| Atez ateko bulegoa | 900 776 776 |
| Udaltzaingoa | 943 361 112 |
| Udal zerbitzuak (Brigada) | 943 370 148 |
| Sexu Aholkularitza Gunea | 697 919 516 |
| Gizarte Zerbitzuak | 943 377 110 |
| Diputazioa - Basetxea | 943 361 215 |
| Bake Epaitegia | 943 372 336 |
| Udarregi Ikastola | 943 361 216 |
| Haur Eskola | 943 374 061 |
| Zubietako Lanbide Eskola | 943 364 600 |
| Zubietako Herri Batzarra | 943 372 077 |
| Hastapen tailerrak | 943 360 465 |
| KZgunea | 943 023 684 |
| Oiardo Kiroldegia | 943 372 498 |
| Sutegi Udal Liburutegia | 943 360 692 |
| Zumarte Musika Eskola | 943 371 594 |
| Etumeta AEK euskaltegia | 607 609 379 |
| Kalezar Eguneko Zentroa | 943 365 249 |
| Gure Pakea Zahar Egoitza | 943 368 770 |
| Gure Elkartea Zahar Egoitza | 943 371 751 |
| Arrate Zahar Egoitza | 943 366 340 |
| Usurbilgo Salbatore Parrokia | 943 361 239 |
| Noaua! Kultur Elkartea | 943 360 321 |
| Abere-Landare Babeslea | 943 376 650 |
| Taxia (Angel) | 607 928 770 |
| Taxia (Joxe Kruz, 8 plaza) | 677 373 466 |
| Eusko Tren | 943 470 976 |
| LurraldeBus | 943 000 117 |
| Korreos - posta zerbitzua | 943 362 894 |
| Anbulategia | 943 362 013 |
| Amenabar botika (lehen Oa) | 943 376 076 |
| Iturralde botika | 943 363 395 |
| DYA | 943 464 622 |
| Gurutze Gorria | 943 272 222 |
| Emergentziak | 112 |
| Genero-indarkeria, arreta | 900 840 111 / 016 |
| Gonzalez Ehorztetxea | 943 362 163 |
| Gipuzkoa Donostia Kutxa | 943 361 202 |
| Euskadiko Kutxa-Laborala | 943 364 740 |
| Banco Guipuzcoano | 943 370 006 |
| Banco Popular Español | 943 370 411 |
| BBVA | 943 377 155 |
| Caja Rural Kutxa | 943 368 842 |
| Argindarra - Iberdrola | 901 202 020 |
| Gas naturala - Naturgas | 902 123 456 |
| Telefonica | 1004 |
| Euskaltel | 900 840 840 |

# Goardiako farmaziak Apirilak 07 - apirilak 17

| | | | |
|---|---|---|---|
| Osteguna | 07 | GANDARIAS-URIBE | Iñigo Loiola 9. Lasarte |
| Ostirala | 08 | ORUE | Jaizkibel plaza 2. Lasarte |
| Larunbata | 09 | ACHA-ORBEA | Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte |
| Igandea | 10 | ACHA-ORBEA | Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte |
| Astelehena | 11 | URBISTONDO | San Franzisko 1. Lasarte |
| Asteartea | 12 | LASA SUQUIA | Kale Nagusia 42, Lasarte |
| Asteazkena | 13 | ACHA-ORBEA | Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte |
| Osteguna | 14 | GIL | Kale Nagusia 24. Lasarte |
| Ostirala | 15 | ACHA-ORBEA | Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte |
| Larunbata | 16 | URBISTONDO | San Franzisko 1. Lasarte |
| Igandea | 17 | URBISTONDO | San Franzisko 1. Lasarte |

* LARUNBATETAN, Usurbilgo bi farmaziak irekita egongo dira: 9:00-13:30

**GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ**
URRUTIA YURREBASO, MAITANE
Etxeberri auzoa 1. Florida auzoa, Hernani
943 55 77 38 22:00 - 09:00

**Gainontzeko datak www.cofgipuzkoa.com web orrian ikusgai.**

# Agenda apirila

## 07 osteguna

- **Euskal Herriko Itzulia Usurbildik barrena** 14:30-15:30ak artean. Errepidea moztuko dute. Informazio gehiago: 11. orrialdean.

## 08 ostirala

- **Ziortzako kanpaldian izena emateko azken eguna.** Emailez ziortzage@gmail.com edo WhatsApp bidez 639 879 409.

## 10 igandea

- **Baranbio-Altube mendi irteera. 7:00etan kiroldegian** (aldez aurretik eman behar zen izena).
- **Tipi-Tapa** Artzabal, Bordatxo, Txirristra eta Aitzaga tabernetan. Zozketa 15:00etan.

# Datorren astelehenean, Jai Batzordearen bilera Potxoenean

Hiru hilabete geratzen dira Santixabel jaietarako. Prestaketa lanak martxan dira, ordea. Jai Batzordea bitan batu da eta hirugarren saioa datorren astelehenerako iragarri dute: apirilaren 11 astelehena, arratsaldeko 18:00etan Potxoenean.

Jaietako nondik norakoak lotzeko bilerok irekiak dira, herritar eta eragile ororentzat. 25 lagun bildu ziren aurreko saioan. Jai Batzordetik iragarri dutenez, aurten ideia berri ugari omen daude.



**Jai Batzordearen bilera arratsaldeko 18:00etan hasiko da, eta Potxoenean egingo da.**

## Urdaiazpiko pintxoak, igandeko Tipi-Tapan

Pintxo festa ate joka dugu berriz. Igande honetan, apirilaren 10ean, Hurbilago Elkarteak Usurbilgo Udalaren babespean antolaturiko Tipi-Tapa ospatuko da. Oraingoan bost ez, lau tabernetan, Txiriboga itxita baitago; honenbestez, Artzabal, Bordatxo, Txirristra eta Aitzaga tabernekin osatu ahalko duzue ibilbide gastronomikoa. Edaria eta pintxoa, ohi bezala, 2 eurotan izango duzue. Eta 15:00etan 150 euroko erosketa balearen eta 2 lagunentzako otorduaren zozketa.

## Datorren astean, kontzertu gaua Gaztetxean

Apirilaren 16rako Kontzertu Gaua Tutan Come On (irudian), Voltaia eta Santo Rostro taldeekin. 22:00etan, Gaztetxean.




## Datozenak

### "Erraiak" nobela, irakurketa topaketan

Apirilaren 27an izango da, 19:00etan liburutegian. "Danele Sarriugarteren *Erraiak* (Zilarrezko Euskadi Saria 2015) liburua izango dugu ahotan, eta idazlea bera gure artean egongo da, istorioaren barne muinak komentatzeko eta sortze prozesuaz hitz egiteko. Liburuaren ale ezberdinak jada, Liburutegian daude eskuragarri; izan ere, liburua aldez aurretik irakurriz gero, etekin handiagoa aterako baitiogu topaketari", antolatzaileen esanetan.

### 1966an jaiotakoen kinto afaria

Aurten mende erdia beteko duten herritarrentzako kinto afaria antolatu dute maiatzaren 14an Olarrondo jatetxean. Iluntzeko 21:00etarako jarri dute biltzeko hitzordua, baina antolatzaileek ohartarazi dutenez, "nahi duenarentzat afalaurretik 19:00etan Bordatxon elkartuko gara".

**Aldez aurretik izena eman**

Afaritarako izena, apirilaren 30a baino lehen eman beharko da. 45 euroko ordainketa egin beharko da, kontu zenbaki honetan: ES41 2095 5069 0091 1591 6891.









PREST

MONDRAGON
UNIBERTSITATEA




**GRADUKO** ATE IREKIAK

**GOI ESKOLA POLITEKNIKOA**

**ARRASATE · APIRILAK 21**
OSTEGUNA, 17:30 / Aula Magna

**ORONA IDEO · APIRILAK 30**
LARUNBATA, 10:30 / Aula Magna

**ENPRESAGINTZA FAKULTATEA**

**BIDASOA · APIRILAK 16**
LARUNBATA, 11:00 / Aula Magna

**OÑATI · APIRILAK 23**
LARUNBATA, 11:00 / Aula Magna

**BILBAO · APIRILAK 30**
LARUNBATA, 11:00 / Aula Magna

**HUMANITATE ETA HEZKUNTZA ZIENTZIEN FAKULTATEA**

**ESKORIATZA · APIRILAK 21**
OSTEGUNA, 18:00 / Aula Magna

**ARETXABALETA · APIRILAK 21**
OSTEGUNA, 18:00 / Aula Magna

**GASTRONOMIA ZIENTZIEN FAKULTATEA**
Basque Culinary Center

**DONOSTIA · MAIATZAK 21**
LARUNBATA, 10:30 / Aula Magna

ETORRIKO ZARELA JAKINARAZI!

**902 110 436**

**www.mondragon.edu/prest**

#erronkarakoprest

# HURBILAGOREN APIRILEKO ZOZKETA







**Lehen saria:**

**BIZIKLETA**

*BOTTECCHIA*

*"Senales" Fat Bike*

hurbilago

Apirilean zehar zozketan parte hartzeko tiketak banatuko dituzte Hurbilagoko dendek.



**Bigarren saria:**

**TELEBISTA**

*PANASONIC TX40C300E*

*40" FULL HD*

EROSKI city · ALKARTASUNA · ARGILAN · Iturralde botika · TXAPARTEGI · BORDATXO taberna · LAUROK · "EL ALMACEN DE AGINAGA" · USURBIL OPTIKA · ESNAOLA JANARIDENDA · Elexpe · AGINAGA SAGARDOTEGIA · ANTZABAL · SAIZAR · MIKEL ARRAINDEGIA · ALDAMU · JUANTXO · INTZA · Iratze · kaffa · ITZIRA · Kentuene · Errazkin · Ane · LIZARDI LIBURUDENDA · LOLI LIZARRALDE ESTILISTA · Marije · Bixen · mistoa · Pello · txirriStra TABERNA · ARRUTI · Olar-Goi · PAUMA · AITZAGA · Lurda · tobyngana english school · IVAN PEREZ · Txirinbolo · Esnaola · Aizpurua Okindegia